

MERKATUAREN SEGMENTAZIOA

Munduaren 8%a daltonikoak dira. Produktu hau ez dago %8 horri bideratuta, beste %92 ari baizik (eskoletan hitzaldiak egiteko interesa dutenentzat, medikuentzako, daltonikoek nola ikusten duten jakin nahi dutenentzat adibidez).



Printzipalki, batez ere medikuentzat bideratuta dago, mediku hauek existitzen diren daltonismo ezberdinak azter ditzaten (protanopia, deuteranopia, tritanopia...). Behin daltonismo mota bakoitza aztertuta, mediku hauek pertsona hauen ikusmena nolakoa den egiaztazteaz aparte, bere bizitzan nolako eraginak dituen aztertuko dituzte, psikologikoki.



Bideojoken sortzaileei ere bideratuta badago gure produktua. Gaur egun, bideojoko bat

zuetan badago daltonikoen ikusmenarentzat moldatutako modu bat, adibidez, Fortnite-ren kasua. Baina joku hau salbuespen bat da, ez da oso ohizkoa kasu hau. Horregatik, gure betaurrekoak bideojoko sortzaileentzat lagungarriak izango dira, daltonismo ezberdina k dituzten pertsonentzat hobetoen moldatzeko.

Azkenik, gure betaurrekoak eskoletan hitzaldiak egiteko eta daltonikoen ikusmena nolakoa den interesa dutenentzat ere bideratuta dago. Jende askok galdetzen die daltonikoei askotan “Eta hori nola ikusten duzu?” edo “Hau zer koloretakoa da zuretzat?”. Azkenean, daltoniko batentzat nekagarria izaten da eta gure betaurrekoek jendea kontzientziatuko dute haien ikusmenataz.

Gaur egun, gizartea toleranteagoa da eta arazo sozial, kultural edo biologiko mota desberdinak dituzten beste pertsonetaz gehiago kezkatzen dira. Horregatik, jende

askok interesa izango du gure produktuan, beste pertsona batzuek bizitza nola ikusten d
uten jakiteko, zein koloreekin eta zein zailtasunekin.